

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko irailaren 18a / 264. zenbakia

- **HERRIKO KONTUAK** Ikasturtea hasi da 05
- **KIROLA** Oriko-Keta, lehen derbia 08
- **HARMAILATIK** Oiana Blanco 09

- **AIAKO BERRI** Gazteentzako lokal eske 11
- **IRITZIA** Ane Bordagarai 18
- **HERRITARRA** Iñaki Etxeberria 25



Esperantza
harrobian jarrita

Aurtengoa ez da izan denok nahi genuen bezalakoa; baina Oriok harrobi sendoa du eta zaleek hartan jarrita daukate esperantza.



Mediederren eskutik estetika zerbitzu osoko unitate berria gaineratu dugu ZA-SSen:

Laser medikoa, mikropigmentazioa, kosmetika homeopatikoa, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak, mesoterapia, depilazioa eta abar

Ez dudarik izan konpromiso gabe galdetzeko, zure beharrei dagozkien tratamenduen inguruko informazio pertsonala emango dizugu eta, inaugurazio opari modura, azal diagnostikoa egingo dizugu.

TXUNDITZEKO!

San Nikolas 2. Orio
Telf: 943 83 31 70



Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonef.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

ile apaidegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bujo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 beheko - ORIO
Autobus parada ondoan

LURDES

marrazketa

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ZAPATA KONPONKETAK

Larazueketa 19000 - 4300 eta 4300 - 19000
Larazueketa 0900 - 4300
Herritako errepidea, Orio

ALTERRI

Karta eraberritua

Asteburua, eguerdi eta gureta,
menu bereziak

943 83 07 62

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 84 82 15

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com**Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldeaPat Cowie, Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Jon Agirresarobe, Oiana Blanco,
Ane Bordagarai, Txanka eta
Xarpas**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzailleakAne Murillo eta
Ekiñe Miralles (Orio)
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Zorionak, Oiana!

TXANKA ETA XARPAS**1**

Oiana neska bizkorra
atera zaigu herritik
isil-isilik eta apal
lana egin du gogotik
deporte hortan munduan
bakarra dezu aurretik
zilar dominakin etorri
zera Rotterdametik.

2

Lengo hilean izan genun
Oianaren aditzera
mundu hontako onenekin
joan zinen borrokatzera
zilar domina irabazita
etorri zera etxera
ta merezia izandu dezu
herri guztian harrera.

3

Oraindik zaude neskatz
gazte ta indarrez betia
harriturikan utzi diguzu
herri hontako jendia
izugarria mundu guztian
bigarrena izatia
aurten zilarra ekarri dezu
hurrengo urten urria.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Gaztetxerik gabeko Gazte Festak, berriz?

Urte bete pasa da lehen Gazte Festetatik; beraz, urtea beteko da gaztetxea okupatzeko ahalegina egin genuenetik; irailaren 26an hain justu. Udalarekin negoziaketan hasi ginen orduan –hasieran denek baietz, gero EAJk eta PSOE-EEK atzera egin zuten, besteek oraindik gaztetxean sinesen dutela esaten digute...–, baina oraindik kale gorrian jarraitzen dugu. Gauza asko pasa dira urte luze honetan eta nazka-nazka eginda gaude.

Baina ez pentsa gutun hau etsi dugula esateko idazten dugunik: ezta pentsatu ere; inoiz baino gogotsuago gaude dagokigun etxea edukitzea eta Gazte Festetan erakutsiko dugu hori, beste behin ere, gazteok dakigun moduan.

Gazte Festak ez dira gazteontzat soilik, gazteok herriar guztientzat sorturiko festak baizik. Oraingo honetan, Udalaren baimenarekin, Herriko Plaza hartuko dugu hiru egunez eta gaztetxean egingo genituzkeen ekintzak han egin, guztiak jai-girokoak, jakina, festa egunak baitira. Herriar guztiak gonbidatzen ditugu gurekin gozatzera, ikastera eta parte hartzera, egiten ditugun gehienak ez dira eta begira egoteak. Utzi itzazue aurreiritziak alde batera eta zatozte denak gurekin.

Bukatzeo, Udalari erronka egingo diogu hemendik: ezetz beste urtea bete gaztetxerik gabe!

OKK GAZTE ASANBLADA

Mendira nondik?

Ni ez naiz hasiko autopista sarrera eta irteera berria beharrezkoa den ala ez baloratzen. Esan nahi dudana bakarra da, bertatik pasatzen diren oinezkoen egoera ez dutela inolaz ere kontuan hartu hori egitekoan, asko baikara Kukuarri, Itsaspe edo Bentako bidea

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egin dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

egiten dugunok. Behin horrelako obra bat egiten hasiz gero, ez litzateke gehiegi eskatzea izango, hondartzatik Anduko bidegurutzera arte, oinezko-entzako pasabidea jartzea.

Gogoan dut autopista gainetik igaro behar zuen zubia ere, San Martinetik Anduko bidegurutzera arte, egitekoak zirela, baina noski! Hori hauteskunde garaian entzun zen. Denok dakigu hitzak haizeak eramaten dituela, eta hauteskunde garaian haizeak gogor jotzen du.

Horretaz aparte, diru mordoa gastatu behar du Udalak Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroan eta, esan beharra dago, tarte horretan fabore gutxi egiten dietela handik igarotzen diren erromesei.

Ea ez beharrik gertatu baino lehen soluzio ona aurkitzen diogun arazo hori.

JOSE M. LIZASO

Mila esker Musika Eskolari

Eskutitz honen bidez, Musika Eskolari gure esker ona azaldu nahi diogu, azken hiru ikasturteetan bertako gelak erabiltzen utzi baitizkigu.

Eraikin berriari esker, aurreten, lekua nahikoa izango dugu eta, ondorioz, orain arte Musika Eskolakoekin partekatutako ditugun gelak ez ditugu erabiliko. Sortutako eragoz-

penengatik barkamenak eskatu eta, batik bat, eskainitako erraztasunengatik eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, eta etorkizunean elkarrekin lanean jarraitzeko asmoric sendoena helarazi.

IÑAKI BERAZA

ORIOKO IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Eskertza

Uztaileko kontzertuan, abesti eta abesti artean Benitok ikastolaren aldeko hitz gogoangarriak eskaini zizkigun eta eraikin berriaren/ikastolaren alde lanean dihardugunok bat egiten dugu hitzokina: *Euskal Herriak bere historian izan duen herri ekimenik garrantzitsuenetakoak dira Ikastolak. Herri batek bere hezkuntza sistema propioa izatea nahi-taezkoa da aurrera egin eta bere nortasun ezaugarriak mantendu ahal izateko. Eta hori da ikastolek egin dutena. Askotan haize asko kontra izan badituzte ere, nahiz auzolanean edo estraperloan batzuetan, herriak elkarrekin sortutako erakunde eta eraikinak dira. Euskal Herriak Ikastolen ispiluan begiratu beharko luke eta hezkuntzatik dauden arazoei aurre eginez herria eraiki.*

Olaxkaren parte hartze berezia ere izan genuen. Besteren artean, Orioko Herri Ikastolako neska-mutilek ereserkia bihurtu zaigun kantua

eskaini ziguten; Brendam Graham-en musika eta Olatz Zugastiren letrak dituen *Bizirik gaudelako* abesti ederra, hain zuzen ere.

Ikastola osatzen dugun ikasle, irakasle, langile eta guraso guztion partetik eskerrik eman nahi dizkiegu Benitoki eta Olatzi, bereziki, eta baita herriari, Udalari eta bertako langileei eta lana borobiltzen lagundu zuten guzti-guztiei ere.

Esan, *Bizirik gaudelako* kantua letrak dioen bezala, urteetan gure herrian piztuta izan den suak aurrerantzean ere horrelaxe iraun dezan ahaleginduko garela, Oriori eta Euskal Herriari, oro har, proiektu berriak aurkeztuz eta beti bezain aitzindari eta ekintzaile izanez.

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO
ARTEZKARITZA BATZORDEA

Dantza ikastaroa

Laster hastera goaz dantza saioekin. 18 urtetik gorakoek aukera dute dantzan ikasteko (fandango, arin-arin, mutxikoak, larrain-dantza...)

Irailaren 30ean egingo dugu bilera, 21:00etan Ikastolako pergolan.

TALAI MENDI ELKARTEA

Kolpe gogorra

Jota gaude oraindik ekainean jasotako berriarekin: Patxi Uranga atxilotu zuen poliziak eta ETAKidea izatea egotzi. Kolpe handia izan da hura hemen lanean ezagutu dugunontzat.

Lau urtez aritu da gurekin lanean Patxi eta, nola ez, harreman estua izan dugu berarekin. Langile fina, haren umoreak behin baino gehiagotan alaitu dizkigu lan orduak. Hori da guk ezagutu duguna, eta lehenbailehen berriz kalean ikusteko desioa adierazi nahi diogu honen bitartez.

KARKARA TALDEA

DBH KONTUAN HARTU GABE, ORION IKASTEN DUTENEN %75 IKASTOLARA JOATEN DA ETA %25 ZARAGUETARA

735 ikaslerekin hasi da aurtengo ikasturtea Orion

Guraso askoren lasaitasunerako, udako oporraldia bukatu da eta ikasleak ere itzuli dira eskolara dagoeneko. Ikastolak eraikin berria izango du, gainera, eta Zaragueta berritze lanak egin ditu.

Irailaren 9an, asteazkenarekin ikasturtea hasi zuten herriko bi ikastetxeek. 735 ikasle izango dituzte guztira: 587 ikasle ditu Orioko herri ikastolak, 2tik 16 urtera bitarteko adin tartean, eta Juan Zaragueta herri eskolak, aldiz, 148 ikasle, 2 urtetik 12ra. Beraz, DBH kontuan hartu gabe, ikasleen %75 ikastolara joaten da eta %25 Zaragueta.

Maria Maestra haur eskolan ere martxan jarri dira dagoeneko. Hilaren 4an hasi ziren txikienak eskolan, baina oraindik txikiek egokitzekeo tartean ari dira, gero ordutegi osoa ematen hasteko. Musika eskolan, berriz, 303 ikasle eman dute izena eta irailaren 3an hasi zuten 2009-2010 ikasturtea.

OBRAK ZARAGUETAN

Udan hainbat obra egin dituzte Zaragueta eskolan. Besteak beste, bertako komun guztiak berritu dituzte eta teilatu azpia ere konpondu egin dute. Bertako zuzendaritzak adierazi digu oso gustura daukela egindako lanekin, goxo eta egoki geratu delako.

IKASTOLAREN ERAIKIN BERRIA

Egiten ari diren etxe berria dela eta hainbat ekitaldi antolatu ditu ikastolak: sanpedroetan triatloia antolatu zuten, Benito Lertxundiren kantaldia uztailan eta irailean ere antolatu dituzte beste saio batzuk.

Irailaren 19an, larunbatarekin, DBHko 4. mailako ikas-



Haurrek mesfidati begiratzen zioten Karkarako kazetariari, lehen eskola-egunean.

KARKARA

leen eta ikasle ohien arteko eskubaloi partida izango da kiroldegian, 17:00etan.

Irailaren 26an, larunbatarekin, 16:30ean, ikastolako

Aurtengo ikasturteak badu berezitasunik, izan ere, Zaragueta berritze lanak bukatu berri ditu eta urriaren 25ean inauguratuko da legealdi honetan horrenbesteko zeresana eman duen ikastolako eraikin berria

gurasoak Realeko beteranoen kontra arituko dira futboleko, Mendibeltz zelaian. Batek baino gehiagok bizitza osoan futboleko idolo izan

587 ikasle ditu Orioko herri ikastolak, 2tik 16 urtera bitarteko adin tartean, eta Juan Zaragueta herri eskolak, aldiz, 148 ikasle, 2 urtetik 12ra. Musika eskolan 303 ikasle hasi zuten ikasturtea irailaren 3an

dituztenen kontra jokatzeko aukera izango du, Realak irabazi zituen bilgatako jokalaririk izango baitira tartean.

Ohorezko sarea Oiana Blancok, Jokin Gozategik eta Jose Luis Loidik egingo dute, eta oroigarri bana jasoko dute, kirol lorpenengatik zoriontzeko. Gero, 18:30ean, herri kirol erakustaldia egingo dute Heldu! taldekoek, ikastolako plazoletan, eta, gainera, Idoia Etcheberriak Euskal Herriko errekorra hobetzeko saiakera egingo du harria jasotzen. Heldu!-koak giza probatan ari diren bitartean, sabela betetzeko aukera ere izango da, txorizoa, saiheski erreka eta edaria salduko baitute. Gauean, 22:00etan, *Mihise gainera dantza* ikuskizuna estreinatuko du Aukeran dantza taldeak kiroldegian.

HAREN BIZITZARI BURUZKO LIBURUA AURKEZTUKO DA IRAILAREN 27AN

Patxi Etxeberria omenduko dute Lasarten eta Orion

Lasarte-Orian irailaren 27an egingo diote omenaldia eta urriaren 1ean, berriaz, Orion liburua aurkeztuko dute.

Patxi Etxeberria bertsolari oriotarra Lasarte-Orian bizi da aspaldian eta, orain, hango bertsozale elkarteak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak haren bizitzari buruzko liburu bat argitaratuko dute: *Patxi Etxeberria, 50 urtez plazagizon (1959-2009). Hizketan bezala bertsotan*.

Liburuaren aurkezpenaren aitzakiatan, omenaldia prestatu diote, irailaren 27an, igandearekin. Omenaldi horren antolaketan parte hartuko dute, batez ere, Lasarte-Oriako Udalak, Orioko Udalak eta bi herrietako bertsozale elkarteak.

OMENALDIAREN PROGRAMA

11:00etan, meza izango da Lasarte-Oriako parrokian, Unai Manterola Orioko apaizak emana.

12:00etan omenaldi ekitaldia izango da Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. Bertan parte hartuko dute: Andoni Egaña, Jesus M. Irazu, Jon Muñoa, Txomin Garmendia, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Koxme Lizaso eta Jon Azpillaga bertsolariek eta Patxiren hainbat lagunek.

Omenaldia bukatzeko, 14:00etan, Intza soziedadean bazkalduko dute.

12:00etako bertso saiora-



12 eurotan erosi liteke liburua, omenaldiko sarrerarekin batera.

Etxeberriari egindako elkarrizketa luze batean oinarritzen da gehienbat Xabier Lasak idatzitako liburua

ko sarrerak 3 euro balio du; liburuarekin erosiz gero, berriaz, 12 euro.

Orion ere aurkeztuko da Patxi Etxeberriari buruzko liburua. Ekitaldia urriaren 1ean izango da udaletxean, 19:00etan hasita.

LIBURUA

Xabier Lasak idatzitako liburua Etxeberriari egindako elkarrizketa luze batean oinarritzen da eta, bertan, bere bizitzako pasadizoak kontatzen ditu Patxik. Bertso bilduma eta bertsolagunekin egindako solasaldiak ere agertzen dira.

LABUR



ATXILOKETA Patxi Uranga espetxean

Ekainaren 23an, Espainiako Poliziak Patxi Uranga oriotarra eta Olatz Lasagabaster haren bikotekidea, atxilotu zituen Usurbilen.

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak zuzendu zuen operazioa, Usurbilera etorrita. Espainiako estatuko segurtasun-idazkari Antonio Camachok adierazi zuenez, operazioa prebentziozkoa izan zen, atentaturik egin gabeko komandoa omen zen-eta.

Ekainaren 27an deklaratu zuten atxilotuek Garzonen aurrean Madrilgo Auzitegi Nazionalan eta inkomunikaturik egon ziren 5 egunetan tratatu txarrak jasan zituztela salatu zuten Patxik eta Olatzek. Baldintzarik gabeko kartzela zigorra ezarri zitzaizen ETako kide izatea eta lehergailuak gordetzea leporatuta. Gauregun, Valdemoroko kartzelan dago Patxi.

Patxi Urangak lau urte egin zituen lanean KARKARAko erredakzioan.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidasoa S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abendaño Industrialdas
843 RS 08 45 / 618 RS 25 05
ZARAUZ

Carmen eta Txomin ARRAZDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

IRAILAREN 25EAN DANBORRADA EGINGO DUTE, BI EGUNEZ JARRAITUKO DUTEN FESTAK HASTEKO

Indartsu datoz aurten ere Gazte Festak

lazko arrakastaren ostean, OKK gazte asanbladak festak urtero antolatzea erabaki zuen. Hilabete askotako lanaren ondoren, programazio betea eta erakargarria aurkeztu dute aurtengorako.

Gaztetxea lortzeko bidean zenbat lagun mugitzen den erakutsi nahi dute, beste behin, OKK-koek. Gazteriak herriarentzat egindako festak dira, autogestioan oinarritutakoak. Udalaren aldetik programazioa abian jartzeko behar ziren baimenak ere jaso dituzte gazteek, esaterako, txosnak jarri eta jaietako ordutegia izango dute tabernek. Festetako leloa hainbatetan entzun dieguna izango da: Gaztetxea orain!



Igande goizean koadrilen arteko herri kirolak egingo dituzten bitartean hamaiketako banatuko dute debalde.

KARKARA

GUZTIEI ZUZENDUTA

Ahalik eta herritar gehien biltzeko asmoarekin, adin guztietako festa zaleei zuzendutako kartela osatu dute.

Ostiral arratsaldean txikientzat pirata jolasak eta txotxongiloak izango dira 17:00etatik aurrera plazan. Afalondoan, piraten danborrada hasiko da 21:30ean eta, orduerdi beranduago, Oiana Blancok txupinazioa botako du moilatik, 90 bat danborjole inguruan dituela.

Larunbatean, goizean hasiko dira festan eta 11:00etan baltsa karrera izan-

go da erriogan. Moilara iritsi beharko dute *Etxeluzeatik* behera egingo den lasterketan. Eguerdiko 13:00etan paella lehiaketa izango da eta, ondoren, bazkaria egingo da egindako paellekin. Bazkalostean bingoan arituko dira eta 17:30ean Orioko txirigotak izango dira ikusgai, aurtengo berrikuntza nagusia. Iluntzean triki-bertso-poteo-manifa egingo dute.

Igandean, diana joko du gazte txarangak goizeko 08:00etan. Herriko buelta egin eta gero, plazan hamaiketako

banatuko dute 11:00etan, debalde. Ordu berean herri kirolak izango dira. Arratsaldean jokoak egingo dituzte eta argazki eta sketch emanaldiarekin amaituko dira festak, traka zaratatsua entzun eta gero.

KONTZERTUAK

Egunero izango dira kontzertuak plazan. Ostiralean Arrautz Ustelak oriotarrak eta Mikel Hats lapurtarrak izango dira. Larunbatean kontzertu potenteena eskainiko dute Capsula argentinarrek

**Larunbat
bazkalosteko
bingoa eta
17:30eko txirigotak
izango dira
aurtengo
berrikuntzak**

eta Random Feelings kataluniarrek. Igande arratsaldean jotzeko azen taldeak huts egin du eta zer eskaini pentsatzen ari dira orain asanbladakoak.

protegia MIRANDA
Larriak irabazten

tarima, ate, teilu, eskailerak...
behar diren arak lanak
egin ohi ditugu

Udako eta bidet: 1 960 42 32 70 • ZARAUTE



RAMIRO

erreportaje
digitalak

943 83 10 48



JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
KOB2 ZEHARKEAN PSIKOLOGO KOLEGIATUAI
ANOLKULANITZA BIVOTE ARTEKO GATZAKETAN
PRESTAKUNTZA TREDETA SUN SOZIALETAN
916 96 25 47
www.kajamun.es



Korner batean izan zuten derbiko aukera apurretako bat oriotarrek.

KARKARA

MENDIBELTZETKO HARMAILAK JENDEZ GAINEZKA IZAN ZIREN LARUNBATEAN

Berdinketarekin hasi du denboraldia Oriok

Aurpegi berriak ditu aurtengo taldeak. Jende berria bai, baina lehendik ere ezagunak direnak. Lana beltz egin beharko dute aurten ere Jaime Coladoren mutilek.

Denboraldiko lehen partida jokatu zuten aurreko asteburuan Orioko FTko mutilek. Getariako Ketaren aurka izan zuten estreinaldia eta lehia estua izan zen hasieratik bukaera arte.

Hasierako hamaikakoan lau berrikuntza ikusi zitezkeen. Atean Joseba Requejo, defentsaren erdian Aitor Iturralde, zelai-erdian Jon Padrones eta punta-erdi lanetan Miralles.

Padrones aurreko denboraldian hasi zen entrenatzen taldearekin, baina aurten arte ez du debutatu. Requejo eta Miralles jubeniletatik igo dira, lehena Antiguotik dator.

Azkenik, Iturralde oraindik jubenila den arren, Jaime Colado entrenatzaileak beregan jarri du konfiantza.

Partida estua jokatu zuten larunbatean getariarren aurka, etxeko bezala jokatzeko baitute Orion Ketakoek, baina erasoan aukera oso gutxi izan zituzten. Argiena, Iker Urdangarinek izan zuen lehen zatia-aren amaieran. Atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina baloiak Ketako jokalaribatengan jo zuen.

Bestalde, jubenilek ere hasi dute ibilbidea. Etxean jokatu zuten lehen partida Ondarroako Aurreraren aurka eta 1-3 amaitu zen. Gauzak ez dira ongi hasi, beraz, horientzat.

GUREAK, KANPOAN

Ainhua Mateosek Realean jarraitzen du, superligako taldearekin. Josu Esnaolak kontratua berritu eta txuri-urdi-
nen lehen taldean jokatu du

Aurten ere lan asko egin beharko dute, lehen partidatik erasoan aukera gutxi izan dituzte-eta

aurtengoan, bigarren mailan.

Arerio aiarra izango du Esnaolak kategoria horretan, Joseba Agirre bertan izango baita igo berria den Real Unio-
nekin.

Jorge Pintok Bigarren B mailan jokatu du, Benidorm aldean.

Hirugarren mailan ere herritarren arteko lehia izango dugu aurten, Josu Solaberrietak Lagun Onaken eta Iker Torrek Lemoan jokatzeko bai-
tute.

LABUR

DARDOAK

Unanue jo eta ke

Joseba Unanue txapelketa garrantzitsuak jokatzeko hasiko da hilabete honen bukaeran.

Ibarrako Gaztelubide taldearekin ari da egun, eta 501 eta Cricket jokotan arituko da Miranda de Ebroko txapelketan, Espainiako garrantzitsuenetakoa.

Urriaren 9tik 13ra Europako Txapelketa jokatu du Holandan. Azkenik, 2010eko otsailean Japoniara joango da Unanue.

SURFA

16. txapelketa datorren asteburuan

Beste urtebetez, Orioko Surf Taldeak txapelketa antolatu du Antilla hondartzan.

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, irailaren azken asteburuan jokatu-
ko da, irailaren 26 eta 27an.

Txapelketa hiru mailatan banatu dute. 16 urte-tik beherakoentzat, 16 urte-
edo gehiago dituztenentzat eta neskena. Olatuak lagun badituzte, igande arratsaldean jokatu dira finalak.

SASKIBALOIA

Eizagirre Duskorekin

Aurten ere Unai Eizagirrek Baskoniako lehen taldearekin aurre-denboraldia egiteko abagunea du.

Harrobiko jokalarione-
nekin ari da entrenatzen Ivanovicen taldea. Entrenatzeaz gain, Eizagirrek Lleidako txapelketara joa-
teko aukera izan du, nahiz eta taldearekin jokatzeko beste baterako zain egon
behar.

HARMAILATIK

Sentimendu koktela

Hainbeste denborazain egon ondoren, iritsi zen azkenean abuztuaren 26a. Lasai eta gogotsu nengoen, gauzak ondo egiteko prest; eta hala izan zen. Borrokaldi bakoitza ondo prestatu eta lan guztia txukun eginez lortu genuen zilarrezko domina etxera ekartzea.

Entrenatzailea eta eguner-egunero tatami gainean lagun ditugun hainbat taldekide gerturatu ziren hara. Denen laguntza ezinbestekoa izan da, baina ez han bakarrik; baita borrokan daramagun bide luzean ere. Pozgarria izan da haiekin lorpena banatu eta ospatu ahalizatealehen-dabiziko unetik, baina irrikitan nengoen etxera bueltatu eta inguruko guztiekin ere ospatzeko.

Halako batean, heldu zen etxera bueltatu eta guraso, ahizpa, ilobak eta bikotekidea aireportuan zain egongo ziren unea. Hegazkinean inoiz baino urduriago eta geldu egon ezinik etorri nintzen: *Haua litzeko gogua!* Baina... Hondarribiko ateak zabaldu eta ziplo geratu nintzen: jende pila zegoen eta denak ni noiz iritsiko zain. Atea zabaldu eta



OIANA BLANCO

MUNDUKO TXAPELDUNORDEA JUDOAN

judoko taldekideak ikusi nituen lehenik, baina parez pare begiratu eta hor zeuden bai, espero nituen guztiak eta baita familia osoa ere –*Ke pasada!*-. Lagunak hortxe ezin faltatu eta baita herriko jendea eta Udalekoak ere, benetan zoragarria!

Hori guztia nahiko ez eta herrian ongietorri paregabea izan nuen. *Oiana, sartu kotxean* entzun nuenean non sartu ez nekiela geratu nintzen, baina merezi izan zuen bai. Herri osoan paseatu, plazara iritsi, eta txalo artean eta *Aupa Oiana, Oiana Txapeldun* oihukatuz jaso gintuen jende

guztiak, Esteban eta biok. Agurra ere dantzatu ziguten, bi lagun oso maiteek, gainera, eta softbolekoak ere hor izan ziren. Udaletxeko balkoira igo, oroigarria jaso, txapela jantzi, alkatearen hitzak entzun eta nik ezin alde egin ezer esan gabe. Herriari eta bertan zeuden guztiei hitz gutxi batzuk zor nizkizuen eta benetan horrela sentitu nuelako hartu nuen esku artean mikroa: *Eskerrak guztioi; jaso dut itzalean egindako lan guztiaren ordaina.*

Hurrengo eguna oso bestelakoa izan zen: gogorra eta triste. Baina badakit azken

**Atea zabaldu eta...
taldekideak,
familia osoa,
lagunak, ezagunak,
herritarrak,
Udalekoak...
Ke pasada!**

unera arte lagundu eta babes-tu nauela izebak. Hori horrela izanda ere, hortxe izan nuen familia guztia alboan ni animatuz eta goraipatuz. Ez al duzue uste edonor egongo litzatekela erabat harro horrelako familia izateaz? A ze koadrila! Pankarta gainean hartu eta hortxe ibili ziren bai, herri osoan gure atzetik. Ez gintuzten une bakar bat ere bakarrik utzi eta horrela sentitu nuen gainera: *nirekin daude.*

Azkenik esango dizuet horrek guztiak aurrera jarraitzeko eta erronka berriei gogotsu heltzeko indarra ematen didala eta orain artekoan bezala hortxe jarraituko dugula gure lana ahalik eta ondoren eginez.

Eskerrik asko, Oriol!

Nahikari
HAKE BENDA

Amantze KOLA, 35
28100 - OYO
Tlf: 943 83 36 30
www.nahikari.es

ARISTERRAZU
jateketa

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

eusko gudari 5
647 02 84 85-943 83 41 17

Muxutrak loredenda

eliza elizko zerbitzuak
ezkontzak
herriko eliza elizateak
india elizateak
botozko zerbitzuak
lirio-elizateak

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

azkue

Tf: 943 13 04 38

ANTXON ARRIZABALAGA | PLATER TIRATZAILEA

“50etik 50 jo nituenean ezin nuen sinetsi ere egin”

Lagunak animatuta, plater tiroketa lehiaketa batean parte hartu eta hasiberriaren arrakasta ikusita, ondo pasatzeko bizio bihurtu da tiroa Aiako masajistarentzat.

Noiz hasi zinen?

Orion hasi nintzen, usokumetan, eta, iaz, lagunekin platoan. Lehenengo lehiaketan bigarren geratu nintzen, eta, azkenean, bizio bihurtzen da, beti hobetu nahian zabilta.

Garestia al da?

Irungo klubean ez gara sozio, eta 6 euro ordaintzen dugu 25 plato. Gero, gasolina, bazkariak, afariak... eta kartutxoak garestiak dira. Eskopeta ona erostea 3.000 eurotik gora doa, eta oso ona, 6-10.000 eurora. Beraz, poliki hasi behar duzu, *hobby* moduan, bestela izugarritzko dirugalera da, eta hortik ez da inor bizi. Aurten 2.000 tiro pasatxo egin ditut klubean, baina batzuek 20.000 egiten dute. Batzuetan botatakoa baino gehiago jasotzen duzu sarietan, gastuak kitatzeko. Berdintzen bada, ongi.

Non aritzen zarete?

Gipuzkoan aritzen gara, gehienbat: Legazpin, Oñatin, Arraten... Espainian eginez gero, diru gehiago jartzen dute eta jende gehiago ibiltzen da, baina, oso ona ez bazara, garestia da eta ez du merezi.

Emakumeak ere hasi dira sartzen. Aiako Marijo Olaskoaga, adibidez, aritzen da gurekin, baina oraindik 100 bat gizonezko eta hiru emakume izango dira gehienetan.

Nola lortzen da trebetasuna?



Aurten eskopeta berria erosi du Antxonek eta gustura dabil.

KARKARA

Ezin duzu goizeko ordu txikietan oheratu, ez baituzu platera ikusirik ere egiten!

Hasieran, erakusten badi-zute, askoz hobeto. Gero, tiro eta tiro eginez, segurantzia hartu eta teknika barneratu arte. Balioez duenakez duhartzen, baina bestela, bai. Baina adin kontua ez da: 73 urteko lagun bat dugu, eta 100 tiro-ekin 95 jotzen ditu!

Nik nahiko txispa dut, baina ikasi dut behin huts egin eta burua galduz gero, gehia-

Kirol bat da, eta nekeak, beroak, tentsioak, denak du eragina tiro egiterakoan

go egiten dituzula. Batzuetan egun txarra duzu eta ez duzu alerik ere jotzen, baina hurrengoan egun guztiz jardunda ere, denak joko dituzu. Hala ere, tentsio pixka bat komeni da, platerak azkar ateratzen direlako eta argi ibili behar duzu denak harrapatzeko.

Lehiaketen bezperetan goiz oheratzen zara?

Ez. Beti bezala ibiltzen naiz. Ezin duzu goizeko ordu txikietan oheratu, edo ajearekin lehiatu, ez baituzu platera ikusi ere egiten! Erreflexuak galtzen dira asko, gorputza ere mantso ibiltzen da, eta huts pila egiten dituzu. Kirola da, eta nekeak, beroak, tentsioak, denak du eragina.

Zer sentitzen da 50 plateretik 50 jotzen dituzunean?

Aurten Euskadiko Kopan lortu nuen eta, egia esan, ez nuen sinisten, ezta pentsatu ere, beste guztiek maila hobea baitzuten, baina egun horretan ni lasai nengoen. Gero, Espainiako txapelketan, eta izugarritzko beroarekin, 75etik 73 egin nituen, eta gustura. Nire kategorian inork ez zuen hala hautsi, eta txapeldunorde gelditu nintzen 3. mailan.

Nola igotzen da kategoria batetik bestera?

Urtean, foso olinpikoan, mini fosoan eta unibertsalean hainbat tirada egin behar duzu: Olinpikoa zaila eta azkarra denez, jendeari ez zaio asko gustatzen. 28 gramoren orde 24 ditu kartutxoak eta 100-105 km orduko abiaduran ateratzen da! Unibertsalean teknika hobea behar duzu platera ateratzeko angelua aldatzen doalako, baina ez da hain azkarra. Mini fosoan mantsogoa da.

Hala ere, denak jo behar dira! Emaitzen gaineko kalkulua egiten du federazioak eta maila bat edo bi igotzen zaitu. Iaz hasi nintzen horetan eta aurten 4. mailan nago, baina datorren urtean 2. mailan izango naizela pentsatzen dut.

Eta horrela jarraitu nahi-ko nuke aurrerantzean: txapelketak irabazi eta ahalik eta ondoen eginez.

BEHARREZKOA IKUSTEN DUTE GAZTEEN INIZIATIBA SUSPERTZEKO


Guraso elkarteak gaztelekua aldarrikatzen du herrian

Herriko nerabeak eta gazteak oso goiz hasten dira inguruko herrietara mugitzen, bai ikasketengatik edota egoteko leku egoki bila, eta, azkenean, kanpoan egiten dute bizitza. Egoera hori ikusita, guraso elkarteak bere kezka azaldu dio Udalari eta, bide batez, konponbide posible bat jarri dute mahai gainean: gaztelekua.

Aldundian izan ziren informazioa jasotzen: *Laguntza ekonomikoa badago eta, gainera, Diputazioak teknikari bat ere izenda dezake 3 urtez bertan lanean aritzeko eta proiektua gauzatu ahal izateko* adierazi digute guraso elkarteko bik.

Informazioa aztertu ondoren, sinadurak biltzen hasi ziren, baina bukatu aurretik alkatearekin biltzea erabaki zuten eta hark maiatza bukeran hartu zituen. Alkateak gaztelekua sortzeko aukera ongi ikusi zuela diote: *Guk arazoa azaldu diogu eta diru laguntzak badaude aurre egiteko, baina borondatea eta benetazko soluzioa berek jarri behar dute.*

Aia herri txikia da eta izan ditzakeen zerbitzuak ere mugatuak dira, baina hala ere, gutxienez, gaiak hausnarketa bat behar duela uste dute eta gazteria plana egiteko eskatu diote Udalari, izan ere, beharrezko ikusten dute gazteen inizatiba suspertzeko. *Gaztelekua behar duten edo ez, edota leku egokiena zein izan-*



Gazteek orain bi urte eskatu zuten gaztelekua gutun baten bidez.

KARKARA

Mataderia leku egokia izan liteke, baina tokia aukeratu baino lehenago beharrak identifikatzea komeni da

go litzatekeen gero hausnartuko dugu, horretarako lehenengo gazteen aisia eta ara-

zoak identifikatu behar baitira, baloratu zuten bez.

GAZTEAK ERE KEXAKA

Gazteek diotenez, baliabide gutxi izateaz gain, oso gaizki komunikatuta dago Aia eta herritik ateraz gero egun osoa kanpoan ematen dute. *Oriora, Zarautzera edota Urbilera mugitu behar dugu eta etxera itzultzeko oso autobus gutxi ditugu aukeran. Neguan, berriz, zertarako kalera ateratzen lagunak etxean sartuta badaude? kexatu dira.*

LABUR

PALA Neskentzat eskolak

Emakumea Pilotari proiektuaren barruan, neska gaztetxoentzat pala eskola jarriko da martxan Aian, bertako Udalak eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak egin duten hitzarmen baten ondorioz. Ikasturte honetan ekingo zaie eskolei, urriaren 6an, astearteetan, 16:30etik 18:00etara, eta bertan 10-16 urte bitarteko neskak aritu daitezke, aiarrak ez izanda ere.

Lardizabal eskolan eman daiteke izena, inskripzio orria bete eta 90 euro ordainduta. Material eta begirale gastuak prezioaren barruan daude.

LEHIAKETA Argazkiak aurkezteko epea amaitzear

Azken urteetako ari jarraituz, Aiako 4. argazki lehiaketa egingo da aurten. Gaia, *Aiako baserriak erai-kin gisa* da eta irailaren 30erako aurkeztu behar dira lanak kultur etxean.

Argazkiak bidaltzeko, ez da Aian erroldatuta egon beharrik eta bi multzotan banatuko dira partehartzaileak, aiarrak alde batetik eta kanpotarrak bestetik.

Lehiaketaren oinarriak osorik ikusteko Aiako Udalen web orrialdean daude; www.aiako.com.


**MEDIKUNTZA NATURALA,
HANAKAKO KONSTELAZIOA,
KONSTELAZIO FAMILIARRA
ETA TAROT TERAPEUTIKOA**
Behar, Gero, Berant...
Kontaketa: 685 73 93 65 edota telefonoz
685 73 93 65 - Izarre -


**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L**
TXORROKAK - BALBUKAK
Sentilgo auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA



Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

egunero-egunero,
zuekin...
www.karkara.com
Konektatua!

AIAKO LEIHOA

Michael Jackson

Joan zan ekainaren azken aldean, ia mundu guztiko albistea zan, Michael Jacksonen eriotza. Eriotza bat tartean danean, txantxak alde batera laga bearra izan oi da.

Baina ondorenak alde aundikoak gertatzen dira. Abar askorengatik gaiñera.

Bat oso ospetsua izan dalako, oso artetsua zalako, aberatsa zalako, diru asko mugiarazi zuelako bizitzan, figura xeble bat izan zalako, gaztediaren artean arrakasta aundia izan zuelako, baina itz baterako diru asko mugiarazi badu. Ori sakratua baita.

Ondorenak oso entzute suak izaten dira bai. Michael Jacksonenak zer esanik ez.

Amar bat seme-alaba pobrezan azi ta ezi dituzten senar-emazteak edo aitona-amonaren batzuk galtzen

diranean, ingurukoak bakarrik oartzen dira.

Or ez da meritu edo onorerikegongo nunbait. Nik ulertzen det, bizitzan bat artetsua bada asko lezake. Eta doaiak errespetagarri dira beti. Baiña nik uste nuen, bein il ezkerro, artista izateari lagatzen dioela batek. Bai zera! Mundu guztiak joan-nai ba, Michael Jacksonen illetatara.

Zer asmatuko eta; artean

**Doaiak
errespetagarri
dira beti. Baiña nik
uste nuen, bein il
ezkerro, artista
izateari lagatzen
dioela batek**

beintzat ez zala izkutatu eta, berarekin azken diru biltzea egitea. Alegia, illetatara joan nahi duteneri, diru sorrera bat kobratzea. Kaixo motel. Ez zegok gaizki.

Nik ere, urte mordo bat baditut bizitza ontan, eta uste nuen, geientsua ikusita nengoela. Ederki enteratuta ago Niko.

Benetako figura izango zala ez det ukatuko. Gaztela-

**Amezketako
Pernandori
galtzak josten
zizkion amona
jostunak ikusi
balitu Jacksonen
jantziak**

niaz esaten dute ba, figura, figura, pero de co...nes.

Gutxitan baiña, noiz bein-ka ikusi izan nuen telebistaz, zalako Michael Jackson ura. Nik ez nion beintzat antzematen, neska edo mutila zer zan eta...

Berarentzat jantziak egiteko ere, danetik bearko zuen. Modistak, sastreak, edo desastreak.

Amezketako Pernandori galtzak josten zizkion amona jostunak ikusi balitu Michael Jacksonen jantziak, esango zuen, aaaii Jainko potoloa.

Arinka ematen zuen, buru ura konpontzeko ere bearko zituen, pelukero edo pelukerak. Neri Madrillen moztu zidan pelukerua baiño artis-tagoak...

NIKOLAS ZENDOIA

TXOKOAK ETA JENDEA



Arantzazuko 25. ibilaldia

Pasa den uztailaren 4an egin zen urteroko 52 kilometroko Aiatik Arantzazurako ibilaldia. Hogeitabosgarrena zenez, inoiz baino jende gehiago animatu zen parte hartzera, 45 pertsona, eta antolatzaileek kamiseta berezia ere atera zuten ospakizun honetarako, argazkian ikus daitekeen bezala. Giro ederrean, batzuk hobeto eta beste batzuk okerrago, baina denak iritsi ziren helmugara. Zorionak antolatzaileei urte hauetako lanarengatik.

*Aurten ere ezin
izan dira
gauzak nahi bezala
gauzatu.
Bandera bakarra
irabazi dute, eta
arraunlariak ez
dira konforme.
Taldea gaztea da,
sendoa eta
irabazteko grina
handia du; horri
eusten bazaio,
Oriok zeresan
handia emango du,
harrobia zainduz,
dirudunen aurrean.*

IKER GURRUTXAGA

Txanponaren bi aldeak ikusi ditugu aurten Oriorekin. Behetik gora etorri zen uztailan, halamoduzko emaitzak lortzetik abuztuan txanda nagusian sartu eta bandera bat irabaztera iritsi arte.

Baina gauzak trabestu egin ziren Kontxan. Bandera lortzeko lehian ikusten zuten askok. Are gehiago, sailkapen estropadako emaitza ikusi eta gero. Kaikuk alde handia aterazien guztiei, baina Orio Castroren pare ibili izanak, jendearen ilusioa berpiztu zuen.

Arraunlariak lehen igandean gogotsu ateraziren, zerbait handia egin nahi zuten. Talde gaztea zen eta, arraunlari askorentzat, lehen Kontxako estropada. Irabazteko antsia horrek eta eskarmentu faltak, ordea, gauzak ongi irteteara galarazi zien.

Lehen igandeko estropada eta gero, helburua urrun geratu zen, ohorezko txandatik kanpora geratzearekin batera, besteengandik hain urruti, gainera.



KARKARA

GAZTEEI TOKIA EGIN ZAIE, BAINA ERDIPURDIKO DENBORALDIA IZAN DA

Harrobiaren indarra lehertu zain

HOBETZEKO BEHARRA

Bigarren igandean itxura ona eman eta tanda irabazteko ahaleginak egin zituzten Aizperroren mutilek.

Irteeran, Urdaibaiko Xabier Bereziartua *Txato* min hartuta zegoen eta, horren ondorioz, Urdaibaik estropada utzi behar izan zuen.

Estropadako lehen luzea, bikaina izan zen ikuspuntu guztietatik. Erritmo bizia eraman zuten eta pixkanaka-pixkanaka Pedreña atzean uzten joan ziren.

Ziabogan bost segundoko tartea zuten. Errenta horrekin jendearen poza nabaritzen zen Aquariumeko gainean. Baina errentari eusten jakin beharra dago halakoetan eta igandean ezin izan zuten hori gauzatu oriotarrek; besteak beste, zia bogatik bueltan bi itsasontzirekin gorabeherak izan zituelako. Santa Klara parean aurea hartzen hasi zen ontzi kantabriarra eta helmugan bost segundotara iritsi zen ontzi horia. Bukaeran, seigarren izan zen Mirotsa.

ADITUEN BALORAZIOA

Komunikabideetan, ohi den bezala, adituak eramaten dituzte kirol-esatarilanakegitera. Kontxako kasuan, Patxi Frances, Juan Angel Garmendia eta Jon Salsamendi izan ziren funtzio horiek betetzen.

Aukera horretaz baliatuta, bina galdera egin genizkien. Alde batetik, balorazio txiki bat egiteko eskatu genien eta, bestetik, azken bi estropadetara begira nola ikusten duten Mirotsa.

Patxi Francesek, Ser irratia-riaren esatari lanak egin ditu. Esan digu ongi ezagutzen duen taldea dela. Nahiz eta aurtun kanpotik ikusi –Zierbenako prestatzailea da–, arraunlariak izugarrizko fisikoa dutela dio.

Gauzak zinez ongi egin nahi dituen taldea dela adierazi zuen Francesek eta, ziu-rrerik, horrek gaina hartu eta dagoen lekura eraman duela.

Hurrengo estropadetan gauzak ongi egingo dituztelakoan dago. Kontxako pre-

sioa eta lehen astean egindako irteera txarrak hondoa joarazi ziela uste du, baina berriz ere gora egin eta goian izango direla pentsatzen du.

Juan Angel Garmendia, uda osoan izan da Euskadi Irratian esatari. Bere ustez, gazte jende asko sartu dela kontuan hartuz, denboraldi ona egin dute oriotarrek. Klubean aldaketa datorrela ikusten du eta herrian hori baloratu beharra dagoela dio.

Datozen estropadetan ez du uste aparteko ezer gertatuko denik. Tramite hutseko estropadak direla irizten dio, *Xarpasek*. Orio goian izan arren, ezer jokoan ez dagoen arraunlarien motibazioa ez da besteetan bezain bestekoa Garmendiaren arabera. Juan Angelek dio denboraldiak Kontxan beharlukeela amaiera.

Hirugarren esataria Jon Salsamendi izan da aurtengo Kontxan. Astillerorekin sailkatzerikek zuenez lortu, ETBk fitxatu zuen bi igandeetan berekin izateko.


Uztaila gorabeheratsua izan ondoren, txanda nagusia sartu eta oriotarrek egoera egonkortu zutela dio. Ilusioz betetako abuztua izan dela pentsatzen du Salsamendik, bai Zarautzen egindako lanagatik eta baita Hondarribian lortutako banderagatik ere.

Bai arraunlariak, bai herri guztia ilusio horrekin iritsi zirela adierazi du; baina, zoriturrez, uztailako emaitzeta-ru bueltatu direla.

Aizperrok herriarengan hainbat arrazoi medio sortzen duen ilusioa azpimarratu nahi izan du Jonek, bera ere Kontxara ilusio horrekin joan zela esanez. Baina, objektiboki, emaitzak ez direla oso onak izan esan du.

Dena den, hurrengo estropadetan ilusio hori berritzeko aukera izango dutela esan du. Horrela, datorren urteari begira, gogoz hasteko arrazoiak eskuratzen baitira.

Orioko traineruak beti gogo handiz prestatzen ditu azken estropadaketa, gauzak horrela, emaitza polita esku-



ratzeko moduan izango dira Salsamendiren ustez.

AIZPERROK SEGITUKO DU

Azken momentuan jakin dugunez, Joxean Olaskoaga *Aizperrok* Oriorekin segituko du datorren urtean ere, entrenatzaile moduan, aurtengo lanari jarraipena emanez.

DENBORALDI BUKAERA

Denboraldia amaitzeko bi estropada geratzen dira.

Lehena larunbatean, irailak 19, jokatu da, ohi baino lehenago, 16:30ean, Bermeen. Igandean, denboraldia amaitzeko, Portugaleten izango dute estropada.

Eguerdiko 12:00etan joka-



tuko da 35. El Corte Inglés bande-
ra. Ibaizabalgo ur korronte-
teek asko aldatzen dute estro-
pada eremua eta zortea lagun
beharko dute arraunlariek.

KORTAREN 15. KONTXA
Beste oriotar batek, aldiz, Kon-
txaren aldegozoezagutzeko
aukera izan du aurten ere.

Azken honekin 15. bandera du
Jose Luis Kortak, nahiz eta
hau entrenatzaile lanetan ira-
bazi duen. Kaikurekin lortzen
duen 5. bandera da, Oriore-
kin lortutakoak baino bat
gutxiago. Historian Kontxako
bandera gehien dituen kiro-
laria da, beraz, 60 urteko
ortzaikarra.

PATXI FRANCES



“Fisiko izugarria dute Orioko arraunlariek eta irabazteko gogo handiago da. Horrek guztiak eraman ditu dauden lekura, baina etorkizunean zeresan handia eman dezakeen koadrila da”

JUAN ANGEL GARMENDIA

“Herriak klubaren barruan ematen ari den aldaketa gehiago baloratu beharra dauka. Bandera bakarra ekarri arren, emaitzak txarrak direla esatea ez da egokia.



JON SALSAMENDI



“Ilusioz gainezka iritsi ginen oriotar guztiak Kontxako estropadetara. Hori azpimarratu nahi dut, hainbat arrazoi direla tarteko, beti ilusioa mantendu digula Aizperrok”

Postua	TALDEA	Irteer 6	Kalera	1. Zuloaga	2. Luce	Denbora
1	KAKU AMBILAMP	19:11,12	3	10:07,00	9:16,44	19:23,44
2	NARTURHOUSE CASTRO	19:16,56	2	10:12,00	9:28,44	19:40,44
3	S. D. R. PEDREÑA	19:33,60	2	10:23,00	9:25,00	19:48,00
4	SAN PEDROTARRA A.E. - EL COLMARE	19:21,52	4	10:22,00	9:28,46	19:50,46
5	GRUPO EIBAR CRIO ESTILORA	19:43,66	4	10:18,00	9:36,12	19:54,12
6	HONDARRIBIAARRAUN ELKARTEA	19:26,56	1	10:26,00	9:31,06	19:57,06
7	DONOSTIARRA	20:23,74	3	10:51,00	10:06,72	20:57,72
8	BERMEO-URDAIAI / UMPIROA-IA	19:40,48	1			KALIRATUA

SAILKAPEN OROKORRA						
Postua	TALDEA		Kalera	1. Jandua	2. Jandua	Denbora
1	KAKU AMBILAMP		3	19:11,12	19:23,44	38:34,56
2	NARTURHOUSE CASTRO		2	19:16,56	19:40,44	38:57,00
3	SAN PEDROTARRA A.E. - EL COLMARE		4	19:21,52	19:50,46	39:11,98
4	S. D. R. PEDREÑA		2	19:33,60	19:48,66	39:22,26
5	HONDARRIBIAARRAUN ELKARTEA		1	19:26,56	19:57,66	39:24,22
6	GRUPO EIBAR CRIO ESTILORA		4	19:43,66	19:54,12	39:37,78
7	DONOSTIARRA		3	20:23,74	20:57,72	41:21,46
8	BERMEO-URDAIAI / UMPIROA-IA		1	19:40,48		KALIRATUA



HIRUGARREN SAILKATU ZIREN, BAINA TARTE OSO TXIKIAN SARTU ZIREN LEHEN HIRUAK

Lehia estua emakumezkoetan

Sailkapen estropada ikusi eta gero, espero izatekoa zen lehia estua izango zela igandean emakumezkoen Kontxako banderan. Eta halaxe gertatu zen. Bezperako lehen hiruak izan ziren podiumean, baina Astillerok aurea hartu zion Getaria-Tolosari.

Sailkatze estropadan tarte oso estuak izan ziren II. Emakumezkoen Kontxako Estropadetan. Galiziarrek izan ziren lehenak; bigarren Getaria-Tolosako neskak, segundo berean; hirugarren Astillerokoak izan ziren eta laugarren zumaiarrak; biak, aurreneko bietatik sei segundo eskasera.

Igandean, Galiziako emakumeek irabazi zuten bigarrenez bandera. Ez zen emoziorik falta izan estropadan eta

ziabogan segundo bakarreko aldea zuten Galiziarrek Getaria-Tolosarekin.

Aurrenengo hirurak 6 segundoren bueltan sartu ziren helmugan: lehena, esan bezala, Galizia; bigarrena, Astillero, 5:02 segundora; eta hirugarrena, Getaria-Tolosa, 5:32ra. Laugarren izan zen Zumaiak dezente atzerago iritsi zen.

Baina ez ziren burumakur Getaria-Tolosako neskak. Ez behintzat iluntzean, Kontxako estropadetan parte hartu izana eta denboraldi amaiera ospatzen izan baitziren arraunlari asko Orioko tabernetan, bandera eta guzti.

Getaria-Tolosako ontzian jokatu dute aurten ere Ane Bordagaraik eta Itziar Olasagastik. Ane Getariako klubaren izenean eta Itziar Tolosarenean.

DENBORALDI ONA
Denboraldi ona egin dute oro har Getaria-Tolosako emakumeek. Estropada gutxi jokatu dituzte modu ofizialean. Izan ere, selekzioen sistema dela-eta txandaka ibili dira trainerua osatzen.
Ligako bi estropada ofizial jokatu dituzte eta bat irabazi. Beraz, gustura daude aurten egindakoarekin Getaria-Tolosako neskek.

Ligako bi estropada ofizial jokatu dituzte eta bat irabazi. Beraz, emaitza oso ona izan da

Irailak 12						
Postua	TALDEA	Kalea	1. Ziaboga	2. Luze	Denbora	Diferentzia
1	GALICIA - RIANGERA	4	05:38,00	6:25,66	11:03,66	
2	GETARIA - TOLOSA	4	05:30,00	6:25,06	11:04,06	0:00,40
3	S. D. R. ASTILLERO	3	05:43,00	6:26,32	11:09,32	0:05,64
4	ZUMAI - KIROL JOKOA	1	05:40,00	6:29,62	11:09,62	0:05,94
Irailak 13						
Postua	TALDEA	Kalea	1. Ziaboga	2. Luze	Denbora	Diferentzia
1	GALICIA - RIANGERA	2	05:32,00	6:16,20	10:48,20	
2	S. D. R. ASTILLERO	3	05:36,00	6:15,22	10:51,22	0:03,02
3	GETARIA - TOLOSA	4	05:33,00	6:16,52	10:51,52	0:03,32
4	ZUMAI - KIROL JOKOA	1	05:40,00	6:30,26	11:10,26	0:22,06



KARKARA

Teilatutik hasita egindako etxea

MARIJO SALSAMENDI

ORIO AE-KO ENTRENATZAILEA

Horrela da. Euskotren Liga teilatutik hasi ziren eraikitzen, inongo oinarri sendorik gabe eta hori nabarmen geratu da denboraldian.

Etxean gertutik bizi dugu arrauna. Alde batetik, aulki mugikorreko entrenatzaile lanetan jardun dut Orion, anaiak Astilleron jarraitzen du eta, hori gutxi balitz, senarrak entrenatzen du Geta-ria-Tolosako trainerua.

Aurten argi geratu da Galiziako emakumeek aulki mugikorrean duten indarra. Batel eta traineriletan ere nagusitasuna izan dute.

Besteak ez dira hankamotz geratu, baina Euskotren Liga honetan gauzak ez dira oso ongi antolatatu. Azpiegitura gutxi izateaz gain, ekainerarte inork ez zekien segu-



ru ligarik izango zen ala ez.

Kontuan hartu behar da, urritik ekainerarteko prestaketa zela planifikaturik zegoena, eta alde horretatik gipuzkoarrei ongi etorri zaie txandakatze sistemarena.

Galziarrak tentuz ibili ziren eta segituan sortu zuten talde bateratua eta, horrela, traineru indartsuagoa uretaratzea lortu dute.

Gipuzkoa neska gehien zituen federazioa izanik, txan-

dakatze sistema aplikatu behar izan zuten, klubun artean adostuta, bestela ez zelako guztientzat lekurik izango.

Orioko klubak eta Tolosa-koak harreman estua dute. Oriok arraunlariak eta azpiegitura jartzen dizkio Tolosari, herrian trainerua osatzeko beste emakumerik ez dagoe-lako.

Baina liga honek emakumeen artean arraunzaletasuna bultzatuko duen esperan-

tza dut. Telebistakeragin handia du eta Euskal Herrian arraunketa olinpikoari itzal handia egiten dio traineruak.

Bi urte barru, gainera, Orion jubeniletan neska ugari izango da, eta horrek trainerua osatzeko bidea egin dezake.

Momentuz, jubenilen kuporik ez dute finkatu ligan eta emakumeen kasuan jubenil-senior kategoriatako emakumeak nahastuta dabil-tza.

Ane Bordagarai eta Itziar Olasagasti arraunlariez gain —hauek dira estropadetan aritu diren bi oriotarrak—, badabiltza herriko beste batzuk ere: Aitziber Lizarralde Ur Kirolak taldean, Tubal Lakun-zairen zuzendaritzapean, eta Sarai Lizaso Oriorekin kadetan dabilena, patroï dabil Getaria-Tolosan eta Badalona. Bejondeiela guttiei!

ADARRETATIK HELDUTA

Autopistako obra bukaezina

Zein ondo, ez? Autopistako sarrera berria dugula eta Donostian 5 minutuan egon ahal izango gara! Baina, obra guztiak bezala, amaiezina zirudien, aitzakiak aitzak; zenbat atzeratu diren obrak!

Jakina da obra guztiek eragozpenekartzen dituztela, baina eragozpen horiek lagun gutxi batzuei bakarrik eragiten badiete, zergatik pixka bat murrizten saiatu, ez al da hala? Bada, denbora horretan *errotonda* berri horren gora aldera bizi gare-nok hainbeste denboran jasan duguna ez da makala izan!

Hasteko, Txankatik gorako errepedeak denbora luzean izan duen egoera tamalgaria, horrenbeste kamioi handi pasatzearen eraginez zulotik zulorako bidea egin behar izan dugu; izan ere, uda hasiera arte ez dute behar den bezala asfaltatu—kasualitatea uda hasieran izatea ezta? Turistengatik, agian?—. Graziosoa da, baina zulo horiek, jada, horren handiak zirenean tapatzeko harritxo batzuk besterik ez botatzea nahikoa zela usteko zuten batzuek. Zertarako gehiago? 2 astean berriz zulo bera (edo handiagoa) berdin-berdin egoteko? Eragozpen zerrenda luzea egiteko gai izango nintzateke, baina nire onetikatera niduena abuztuaren 12koa izan zen.

Goizean, Donostiara lanera nindoala, makina eta kamioi dezente lanean zeu-



ANE BORDAGARAI

TXANKATIK GORAKO BIZILAGUNA

Eguerdian bueltatu nintzen etxera, edo saiatu behintzat, eta zer topatuko? Bai Txankako eta bai hondartzako bidea, biak itxita, ezin nuela etxera joan! Ezin al zuten ohar baten bidez abisatu bidea itxita izango genuela egun osoan?

dela ikusi nuen urrunetik eta, beraz, buelta eman eta Igeldoko bidea hartzea erabaki nuen lanetara gerturatu gabe, esperientziak era-

kutsi baitit askotan bidea laburragoa egiten dela. Eguerdian bueltatu nintzen etxera, edo saiatu behintzat, eta zer topatuko? Bai Txankako eta bai hondartzako bidea, biak itxita, ezin nuela etxera joan! Sarikola ingurutik ba omen dago bide bat nire etxera iritsi ahal izateko, baina uste dut ez naizela herritar bakarra izango bide hori ezagutzen ez duena. Ulertuko dutzue une horretan sortu zitzaidan *malaostiya*. Obran egon diren bitartean autopista behin baino gehiagotan itxi izan dute, ezta? Baina ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, gauez itxi dute. Agian, ez du merezi dozena bat herritarrengatik lan hori hartzea, ezta? Baina, aizu, gutxienez ezin al zuten ohar baten bidez abisatu bidea itxita izango genuela egun osoan? Lotsagarria!

Azken puntutxo bat ere aipatzea gustatuko litzaidake, orain obrak bukatuta daudela ikusten dudan akatsa. Goiko biribilgunetik Igeldoko irteera, betidanik estua izan da, baina orain jarri dituzten *hesi* horiekin bidea estuago egiten dute eta, dagoeneko, tokatu izan zait beste kotxe batekin toki horretan gurutzatu beharra. Juxtu-juxtu, baina pasaginen gure autoak urratuko genituen beldurrarekin.

Hori al da obra berria eginda geratuko zaiguna?

NIRE HONETAN

Aurreztu Ubunturekin

Gezurra ari zaigu saltzen etengabe Jaurilaritza. Gezurra eta edozein modutara, gainera.

Ez naiz hasiko hemen Herrizaingo Saila kritikatzeko, zertarako? Ikusi da entzungor egiten diola esandakoari. Hezkuntza Saila da jomuga.

Erosi dituzten 20.000 ordenagailuei buruzko aipua egin nahi dut. Alternatiba libre break alboratu eta Microsoften lizentzietan diru mordoa xahutuko dute, nahiz eta Lopezek hauteskundeetako programan kontrakoa esan zuen. Nik hemendik gure herriko ikastetxeei eta administrazio publikoari Ubunturen aldeko apustua egiteko eskatu nahi diet. Haurren buruak *garbi* daudela aprobetxatu beharko lukete ikastetxeek, baita Zelaaren sailak ere. Aurrezteaz gain, elkarbanatzearen onurak ezagutzeko aukera ematen baitu alternatiba libre break. Berriari beldurra izaten diogu, software librea konplikatuegia dela ere esaten digute, baina ez.

Egun gutxitan egoera berrira moldatzeko moduan da edozein. Ahalegin txikiak, milaka euro aurrezteko ekar dezake, eta hori herriari eskertuko du. Bestela ere, nahiko gastu egiten baita herri honetan...

IKER GURRUTXAGA

AIRDATZA modas
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

bodegasERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurpáin
Gailur eta Arlandegi
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 0910 • 943 83 03 86 / 03 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

MOILA BAZTERRETIK

Txatxak txutxun txitxi!



JON AGIRRESAROBÉ TORROTZO

Eskailea osoa amaitu ezinik gabiltza: txetxe falta zaigu. Txatxa nekamea edo bertsolarien diruzaina, txitxi haragia umeentzat. Txotxo baporen haragia erosten duena eta Txutxu hondartzazaharraren erdian zego-

en txiringito misteriotsua, sar-tzeak beldurra emanagatik barrutik kriston guaia zena.

Udan beste Txutxu bat izan dugu herritarren gogoan. Kanpaia jotzen zuen, Oiana Blanco mundialean bigarren egin gabe ere. Zerbitzu merkea herritarrentzat, euro erdian joan-etorria. Orain, 23.000 euro balio omen ditu trena herrian bueltaka jartzeak. Abuztu amaieran, zenbakiak egiten aritu ginen lagunartean. Txofer berriarekin sei joan-etorri egiten ditu ordubetea, kontatuta. Alegia, egunean hirurogei aldiz pasa da etxe aurretik. Buelta bakoitzean hamar lagun igo ote dira trenera? Kontuan izan eguraldi txarra egindako egunak ere. Hirurogei egunetan 18.000 euroko diru-sarrera, gutxi-gorabehera. Ez dira kontuak

ateratzen. Halere, zuloak zulo, merezi izan du. Ideia polita eta eroso. Ea hurrengo urtean isila ere baden.

Eta ea hurrengo urtean Kontxako ospakizunak ere isilagoak diren. Goizeko ordu txikitán, Txutxuk baino soinu gehiago egin zuten herriko plazan manifestazioa edo erromeria egin zuten haiek. Hitz egina omen zuten tabernariak, baina betiko orduan isildu zen musika. Eta jendea kale gorrian galiziera ikasten. Lo egin ezin dutenak ulertzen ditut, baina gazteek autoa hartu beharra ere ez da soluzioa. Egunen batean buruari helduko diogu.

Aurten ez da ospakizunik izan Kontxan. *Yate vale!* esan behar zion Irakoitzek bueltako luzean azaldu zitzaion ontziari. Ez dira Kontxan gau-

Lo egin ezin dutenak ulertzen ditut, baina gazteek autoa hartu beharra ere ez da soluzioa. Egunen batean buruari helduko diogu

zak nahi bezala atera, baina animo mutilak, gu beti zuekin. Zuengatik egoten dira-eta tabernak goizeko ordu txikiak arte irekita.

AHOLKULARITZA
Fisikala, inborsala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

HAIZE BERRI
taberna-jate-txoko-kafetegia

Plater konbinatuak,
bakatak,
hamburgerak,
ruxioak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Orain berrituta: 8. eta 11. 943 83 16 12. Auzoaren gainean dago.

Joana Murgiondo
Aseguru-agentia

ASEGURUAK

C C I
CARANA, QUAYE, LACORT Y CIA. S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnua: 943 13 46 07

THE ACADEMY OF ENGLISH

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

IZARRA BIDEOA

filmen alokairua,
argazkien berehalako errebelatua,
elektronika tresnak...

299€
DAIY

399€
TELEFUNKEN
LCD 32"

379€
LIEBHERR

...eta orain
ETXETRESNAK ERE BAI

Aritzaga 15. Orio **Tien 21** 943 83 38 81

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak apintxoak

Tfnua: 943 83 06 09

ARKAITZ

Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogilarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Tabrika Agote Industrialdia Agote, 5 20740 Zarauz	Erakusketak San Frantzisko, 1. 20800 Zarautz	Alto Lemondak, 21. 20810 Orrio Tel: 943 09 49 26
---	--	--

jatetxea

logelak

gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06

KOLON TXIKI

abartegi jatetxea

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventanasagasti@euskalnet.net
Bizkale kalea, 20-1 B
20800 Zarautz

Dorronoro Denda

196 letik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



AMILIBIA

ENTZIO LAK, S. L.

kinol partuetan proiektu
eta instalazioak

goi mailako lehiaketarako
arrazun-entziak

Olaskoagacgia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com



islada

ISELINA ZARAUZ

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balsaren kalea, 2 beheko Orrio 20810
Tf: 943 131 836
e-maila: isladazorrio@hotmail.com



sinergia

investigacion
fisioterapia

FISIOTERAPIA: Garikitz Aristegi eta Natalia Wereszen
NUTRIZIONISTA: Garbiñe Nizpuru

Ibal ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

iñaki

argazkiak

caperochipi

ezkontzeka asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiarako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 09 37 / Faxa: 943 89 09 43
e-mail: harnesp00@harnespil.net

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

uranga

autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 88 75

LOBETXU

JATETXEA

GAZTE

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07



Gazte-gaztetatik parrandan

Koadrila parrandazalea egokitu zaigu orain-goan inondik ere. 1956ko ekainaren 22an ateratako argazkia da hau.

Xanti Manterolak esan digunez, koadrilako afari bat besterik ez da, eta eskuetan txanpain botilak badituzte ere, sagardoa omen da edaten ari direna. 16 urte zituzten orduan gehienek, baina lanean ziharduten askok.

Xantik kuriositate

moduan, garai hartan kaba botilak 18 pezeta eta sagardoak 2 pezeta balio zituela esan digu.

Baxoerdiak 2 erreal inguru balioko zituela ere kontatu digu. Soldaduzkara joan zirenean ordea, 2 urte beranduago alegia, gauzak dextente garestiago jarri zitzaizkien gazte hauei. Baxoerdiak 2 errealetik pezetara igo baitzen.

Argazkian ezkerretik hasi eta eskuinera honakoak

agertzen dira: Joakin Arostegi, Xanti Manterola, Joxe Antonio Salsamendi — 18 urte zituen honek —, Juanito Etxeberria, Agustin Lizaso, Joxe Mari San Sebastian, Joxe Manuel Lopetegi eta Jabier Agote.

Udaletxe aurrean egin zuten afaria eta argazkian ikus daitekeenez ederki pasa zuten gaua.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
XANTI MANTEROLA

Allianz 

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

lbal Ondo. 10 behe-oina
telefonoa: 943 19 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zalduia@elkarrekin.pw3.net

PERTSIANAK

A K O M A Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra: 600 70 52 27

ERROTA



- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Egunko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

KRITIKA



Oriko neska koadrila irrifartsu ikus daiteke Salatxon dagoen koadroetako batean.

KARKARA

Aulki mugikorrak badu lekuri Orion

Irakaskuntza ofizio, argazkilaritza afizio eta arrauna pasio. Joxe Mari Olsagastiz ari naiz, hainbeste urtetan arraunklubean lanean diharduengizon horretaz.

Salatxon aulki mugikorrari eskainitako erakusketa jarri du. Argazkiak kategoria denetan dabilen jendearenak dira, koloretan eginda-koak, hasi infantiletatik eta beteranoetaraino guztiak ikus daitezke.

Arrauna eta estropaden inguruan arraunlariak nola egoten diren ikus daiteke bertan. Gainera, neskek eta

egokitutako arraunak protagonismo berezia hartzen dute jarrita dauden koadroetan.

Konposizio ezberdinak erabili ditu Joxe Marik, baina argiaren kontrasteekin jolasean egindako hainbat argazki ere ikusi daitezke erakusketan.

Argazki artxibo izugarria osatu du Googlek eskaintzen duen Picasa argazki zerbitzuan. Bere helbideen artean, <http://www.picasa-web.google.com/orioarraun> ean da bat, bertan argazki historikoak batzen ditu. Aur-

tengoak <http://picasa-web.google.com/croorio-ae2009> orrian ditu gordeta.

Baina arraunaz gain, herriko argazkiak ere badi-tu beste galeria batean, <http://picasaweb.google.com/oriokoherria> da azkenaren izena. Lan eskergaren emaitza, sarean, guztion gozagarri. KARKARAN asko eskertzen ditugu bere argazkiak. Hainbatetan ikusi ahal izan diren traineru estropadetako instantaneak, Olsagastirenak dira-eta.

IKER GURRUTXAGA

IKASLEAK IDAZLE



ANE MURILLO |

DBHKO 4. MAILAKO IKASLEA

Gazteon arazoak

Gazteok udan hondartzan, plazoletan... egoteko aukera dugu, eguraldiak lagunduta. Baina, zer gertatzen da eguraldi txarra egiten duenean? Olatu aurrean jarri eta zerrikeriak jatea al da planik onena? Arazoa konpontzeko gauza ugari eskatu dugu udaletxean. Aukeretako bat gaztetxea egitea zen, baina gauza handirik ez dute egin gaztetxearen alde. Aspaldian, gure gurasoak txikiak zirenean, zinema eta Kaia zeuden. Hori bai arratsalde pasatzeko plan ona! Gero, gazteok soso xamarrek garela esaten dute. Zer nahi dute, bada? Ez daukagu-eta ezer egiteko. Lokala hartzea ere beste aukera bat da, baina bila hasi eta denak komertziorako daudela esaten dute. Krisia? Non dago krisia? Denok zerbait jarrita, arazoa konpontzeko aukera asko daude.

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ordo 4, behea. 20110 Orio

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu



HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Izugarrizko aldaketa dago Kaikurekin irabazitako aurreko banderatik hona. Nire umeak txikiak zirela atera genuen argazki hura, eta oraingoa bilobekin atera dut.”

JOSE LUIS KORTA
Kaikuko prestatzailea
ETB1
2009/09/14

“Irteeratik atzean geratu ginen eta sentsazio txarrarekin, gainera. Ezin genuen. Faktore psikologikoek pisu handia hartzen dute halakoetan. Atzean geratuz gero, hondoratu egiten zara.”

JOXEAN OLASKOAGA
Orioko prestatzailea
Noticias de Gipuzkoa
2009/09/07

OSPAKIZUNA



Koadrilako onenak musean

Ez da ohikoena izaten, baina argazkian duzuen koadrila xelebre horrek, beren arteko onena nor den jakiteko, mus txapelketa egin du aurten aurrenekoz, sanpedroetan, eta urtero egitekotan omen dira, gainera.

Aurtengo txapeldunak dituzue begibistan, Jose Ignacio Manterola eta Jokin Salsamendi, eskuz bordatutako txapela eta guzti. Ez dakigu nola arituko ziren musean, lehenago bazkari eder askoa egin baitzuten, lege onez.

ZORITXARRAK!



Kontxako antolakuntzari

Bigarren igandean gizona zkoen estropada hasi aurretik gertatutakoa lotsagarria izan zen.

Azken orduan Aquarium ingurura gerturatu zirenek ia estropa hasiera ikusteko aukerarik ez zuten izan.

Sarrera kobratu eta gero eskilarak igotzea ezinezkoa zen, goitik behera zetorren jende andana ez zutelako bideratu. Kazetari, txaranga, ordeko arraunlari eta zaletuek 20 minutu baino gehiago behar izan zituzten takiletatik Aquarium gainera igotzen.

Sarrera ordaindu eta gero onartezina da horrelakorik gertatzea.



**Baxoalde, 9
ORIO**

**Joseba Ostolaza
TAXIA**

24 ORDUKO ZERBITZUA
Tf: 646 610 288



**SOLOZABAL
autoeskola**



Euskal Gudari, 30-1. ez
telef: 943 83 08 12

tel/fax: 943 89 00 69

Bikala kalea, 4. 20.000 ZARPAZTU



ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Prestazioak, baparrak, gabe



JAIOTAKOAK

- Adei Izeta Arakama, Orion, abuztuaren 30an.
- Jare Makazaga Eizagirre, Orion, abuztuaren 21an.
- Saioa Etxeberria Alberdi, Orion, abuztuaren 18an.
- Goiuri Berasaluze Trillo, Orion, abuztuaren 14an.
- Ihintza Sarasua Ezkurra, Orion, abuztuaren 12an.
- Maixa Aizarnazabal Azkue, Orion, abuztuaren 5ean.
- Alex Atorrasagasti Pikabea, Orion, abuztuaren 4an.
- Ane Frias Lekuona, Orion, uztailaren 27an.
- Oihan Ikutza Ezpeleta, Orion, uztailaren 16an.
- Sofia Colina Loidi, Orion, uztailaren 8an.
- Lucia Errasti Fernandez de Larrea, Orion, uztailaren 5ean.
- Oier Manzisidor Mateo, Orion, ekainaren 22an.
- Alba Galderos Romero, Orion, ekainaren 19an.

HILDAKOAK

- Benita Etxeberria Oliden, Orion, abuztuaren 31n. 91 urte.
- Carmen Atxega Orbegoza, Orion, abuztuaren 12an. 93 urte.
- Juan Tolaretxi Eizmendi, Orion, uztailaren 22an. 86 urte.
- Isidro Iturain Jonsansoro, Aian, uztailaren 20an. 73 urte.
- Jose Maria Bernedo Galdos, Orion, uztailaren 17an. 72 urte.
- Jose Eugenio Sarobe Lasarte, Aian, uztailaren 12an. 61 urte.
- Maria Antonia Artola Pagola, Orion, uztailaren 8an. 83 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Rene Eduardo Campillo Moreno eta Naroa Villagran Merideño, Orion, irailaren 11n.
- Jose Ignacio Albeniz Peña eta Jesica Pamela Morales, Orion, irailaren 10ean.
- Luis Muusetun Ruiz de la Torre eta Maria Paula Conejo Cotacachi, Orion, abuztuaren 13an.
- Juan Manuel Aldabe Guebenzu eta Laura Ibañez Gonzalez, Orion, uztailaren 30ean.
- Abderrahim Ben Cheikh eta Amal Madrame, Orion, uztailaren 30ean.
- Jose Antonio Cascos Martin eta Sonia Camara Caballero, Orion, ekainaren 20ean.
- Luis Danilo San Martin Oyarzun eta Garbiñe Alonso Eizagirre, Orion, ekainaren 18an.

ZORIONAK



NAIA ETA JARE

Argazki honetan duzue Jare neska txikia, abuztuaren 21ean jaio zena.

Gustura dira, beraz, Rakel eta Igor gurasoak eta Naia ahizpa. Hartz panpinak Koxtapeko jantzia badu ere, Orion jaio denez, ikusteko egongo da zaletasunak nora bultzatuko duen.



BURUHANDIENKO KASTAKOAK

Buruhandineko kastako oriota-rrak dituzue Donostiako badia aurrean hartutako argazkian. Goitik behera: Ana Alberdi birramona, Ana Rosa Iparragirre amona, Naroa Larrañaga ama gustura asko hirurak Eneko mutil txikiarekin.

Maiatzaren 11n jaio zen Eneko Gallardo Lasarte-Orian.




ACTIVA


ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO





Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



FISIOTERAPIA - Gaitortu Ardegi eta Nafalea Wineszen
NUTRIZIONISTA - Gaitortu Ardegi

sinergia investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

IÑAKI ETXEBERRIA | MUSIKARIA ETA PINTOREA

“Teknologia boragineak ez harrapatzeko joan nintzen”

15 urte daramatza Iñakik Costa Rican eta udan egin ohi digun bisita aprobetxatu dugu zer moduz dabilen jakiteko.

Zerk bultzata joan hintzen Oriotik?

Oraintxe egin dek galdera ederra, *la pregunta del millón*. 24 urte nizkian orduan eta mundua ikusi nahi nian. Egoera oso kaskarra huan hemen, lanik ez nian eta itsasoa huan alternatiba bakarra. Probatu nian, baina niretzako ez zela konturatu ninduan segituan.

Musika ikasi nahi nian baita ere eta hemen txaranga besterik ez zegoan; txaranga... eta Benito. Beraz, alde egitea erabaki nian.

Aldi berean, hona heltze-ar zen teknologia boraginea aurreikusi nuela uste diat.

Eta zergatik Costa Ricara?


Aurrena oporretara joan ninduan zarauztar surfista batzuekin. Inork ez zekian non zegoen ere. Billetea hartzerakoan ere: Costa Rica? Hori zer dek, irla? Ba goazemak abenturara.

Hara heldu eta... beste mundu bat huan. Orio orain 30 urte edo gehiago lehenago bezalaxe. *Boom* turistikorik gabe; bertako jendea eta patxada, besterik ez. Arrantzaleak eta... baina beste modu batera, eguneko egiteko bakarrik.

Bizitzeko modu hori gustatu zitzaidan, egunean eguneko eta aldeztu aurretik antolatutako bizitza. Han gertatzea erabaki nian azkenean.

Oriora itzultzen haiz udaro.

Bai. Hasiera batean, lehen bietan-edo, neguan etortzen hasi ninduan. Aurrenekoa gogoan diat anaiaren ezkontzatik izan zela, otsailan,



Astelehenean itzuliko da Iñaki Costa Ricara.

KARKARA

Hasieran neguan etortzen ninduan, baina ez nian egonaldia aprobetxatzen

eta sekulako katarroa harraipatu nian. Costa Ricako klima tropikalera ohituta, hemengo negua gogorra egiten dek. Hala ere, neguan etortzea ez zetorkidan batere ondo, lagunak lanean pasatzen ziaten eguna eta, azkenean, ez nian bisita aprobetxatzen. Udan etortzen nauk orain, eta gustura, gainera.

Herri nortasuna galdu diagu eta, hala ere, jendeak konformismoa erakusten dik

Han nola moldatzen haiz bizitzan aurrera egiteko? Musikari izatea lortu al dek?

Bai motel, musikari eta pintore nauk aldi berean; biak afizio eta ofizio. Gauza gehiagotan ere aritu nauk, izan ere, mekanikako FPa eginda aldegin nian hemendik eta horrek asko lagundu zidak lan askotan aritzeko.

Musikarako ere zaletasun handia zegok han, pentsa, Bob Marley jaungoikoa dek berentzat. Horrek erraztasunak ere ematen dizkik. Edozein tabernatan jotzeko aukera, jende diferentea ezagutzeko... talde bat zeukeat eta astebururo ematen diagu kontzerturen bat. Pare bat tabernetan aritzen gaituk normalean, beti toki beretan, eta batzuetan beste leku batzuetatik ere deitzen zigutek. Jende asko mugitzen dek kontzertuetan eta horrela lortu diagu, esaterako *Alpha Blondie*ekin eman genuen kontzertua.

Oriora etortzen haizenean ere ikusten zaik bizitasun hori.

Orain Orion beste musika kultura bat zegok, lehenago baino askoz erakargarriagoa. Udan lagunekin bildu eta kontzertu bat edo bi ematen dizkiagu urtero.

Jendeak nola begiratzen hau kaletik?

Piuragatik-edo, alperra banitz bezala. Baina han eta hemen berdin lan egiten dek. Ignorantzia eta handiuste asko zegok.

Eta hik Orio?

Beti obretan. Etxe pila, dena igeltsua, plaia txikituta, palazioko zelaia... Orain ohitu nauk, baina hasieran negar eta dena egin nian. Gehiena kanpokoentzako egiten dek, herri nortasuna galdu diagu eta, hala ere, jendeak konformismoa erakusten dik, gero atzetik kezaka ibiltzeko.

Bestalde, gazteei gehiago lagundu behar zaiela uste diat. Lastima, baina aurren ere ez diat Gazte Festak ezagutzeko aukerarik izango; ea hurrengo urtean.

TREN ORDUTEGIAK														
DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20
ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK											
LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan koadro argidun ordutako autobusak Urtebete pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koadro ilunetako ordutak larunbatetako (laneguna) zerbitzuari bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30						
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30						
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek dararna. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentrit bide daude: www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zerbakina					
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30						
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00						

ITSASOA			
Iraila	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
18	04:44 eta 17:01	10:40 eta 23:10	☀
19	05:23 eta 17:42	11:21 eta 23:49	
20	06:01 eta 18:21	12:01 eta _____	
21	06:38 eta 18:59	00:27 eta 12:40	
22	07:14 eta 19:36	01:04 eta 13:20	
23	07:51 eta 20:14	01:41 eta 14:01	
24	08:31 eta 20:56	02:20 eta 14:45	
25	09:19 eta 21:50	03:04 eta 15:38	
26	10:27 eta 23:15	04:02 eta 16:49	☾
27	11:57 eta _____	05:25 eta 18:22	
28	01:02 eta 13:22	07:01 eta 19:46	
29	02:15 eta 14:24	08:12 eta 20:43	
30	03:01 eta 15:10	08:59 eta 21:24	
01	03:37 eta 15:47	09:37 eta 21:58	
02	04:08 eta 16:20	10:10 eta 22:29	

ZAINTZAKO BOTIKAK	
IRAILA/URRIA	Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
■ 18an, Azaldegi.	Etxeberria: Gipuzkoa kalea,17. 943 83 23 98 Zarautz
■ 19an eta 20an, Zulaika.	Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
■ 21ean, Mutiozabal.	Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
■ 22an, Etxeberria.	Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
■ 23an, G. Artiñano.	G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
■ 24an, Larrañaga.	Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz
■ 25ean, Zulaika.	Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz
■ 26an eta 27an, Iriarte.	
■ 28an, Etxeberria.	
■ 29an, G. Artiñano.	
■ 30ean, Iriarte.	
■ 1ean, Zulaika.	
■ 2an, Etxeberria.	
■ 3tik 9ra, Lasa.	
■ 10ean, Mutiozabal.	

IRTEERAK

■ Irailaren 20an, Leitza-Andoain ibilbidea bizikletaz, 25 km. 9-99 urte bitartekoentzat da eta tarte horretan ez daudenek arduradun batekin joan beharko dute. Izen ematea irailaren 16an bukatu zen, baina autobusa bete arte izango da Aiako kultur etxean inskribitzeko aukera.

■ Lloret del Marrera irteera izango da Orioko Zaharren Babes Lekuak antolatuta. Irailaren 21ean irten eta 28an bueltatuko dira. Izen emateko epea bukatuta dago.

■ Irailaren 20an eta 27an, Oriotik Donostirako zeharkaldia itsasontzian. Irteera kirol portutik, arratsaldeko 17:00etan. Izena emateko turismo bulegora jo behar da.

■ Urriak 26an, Gernikako azokara eskurtsioa egingo dute Zaharren Babes Lekukoek. Irteera, 08:30etan izango da Oriotik Zarautz alderako autobus geltokian. Goiza azokan pasa ondoren Mundakako Casino jatatxean bazkalduko dute eta, gero, Bermeora eta Lekeitiora joango dira, arratsalde pasa. Urriaren 1ean eman beharko da izena, 16:00etatik 18:00etara, 35 euro ordainduta.

**Txuleta “Orio estilora”**

Irailaren 19an hasiko da Txuleta Festa eta asteburu osoa hartuko du.

12:00etan, Eusko Labeldun txahalaren pintxoak banatuko dira plazan, euro baten truke.

14:00etan, bazkaria: Jabugoko urdaiazpikoa, Nafarroako zainzuriak, Tuterako kukuluak, Lodosako piperrak, txuleta, Orioko artisau gazta, teilak eta zigarrotxoak. 40 euro balioko du menuak eta otordu guztietan bera izango da. Aurrez erosi beharra zegoen txartela eta, dagoeneko, ez da sarrerarik geratzen.

15:30ean, Oria txaranga kalez kale hasiko da jotzen eta arratsalde osoan jarraituko dute.

21:00etan, afaria izango da Herriko Plazan.

Igandean egitarau bera izango da, txahal pintxoak banatzearena izan ezik.

Gainera, asteburu osoan, Ataungo talogileen saltokia izango da, urdaiazpikoen, Nafarroako piperrena ere bai eta Orioko Arraunketa Elkartekoak Ecania ardoa salduko dute.

BINGOA

■ Orion, asteazkenero, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, bingo saioak egingo dira 16:30etik 18:30era, kultur etxeako areto nagusian.

ERAKUSKETA

■ Orion, irailaren 30era arte, Miren Artetxeren pintura erakusketa ikusgai egongo da kultur etxean. 09:00etatik 13:00etara goizean eta 16:00etatik 20:00etara arratsaldean.

FESTAK

■ Aian, irailaren 29an, Sanmigelak Laurgain auzoan.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, irailaren 30ean jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira zabor lekuetan eta Udalean abisua eman nolakoak diren esateko. Trasteak jasotzera etxeraino joatea nahi baduzu, deitu 902 54 06 54 telefono zenbakira.

ELKARRETARATZEA

■ Orion, irailaren 25ean, ostiralarekin, euskal preso politikoak Euskal Herriaratzaren aldeko kontzentrazio isila egingo da Herriko Plazan, arratsaldeko 20:00etan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

ALOKAIRUA

■ Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, erdibana egiteko interesik baldin badu inork, elkarrekin bila

genezake: bizileku@gmail.com.

■ Pisu estreinatu gabea dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 logela, bi bainu gela, garajea... 629 68 04 10

LAN BILA

■ Ekitaldietako estrukturak jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak...

zainduko nituzke.

Zainketan esperientzia dut eta badakit sukaldean ere. Tf: 639 40 94 21.

■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

BANAKAKO ESKOLAK

■ Goi Mailako Ingenieri ikasketak egiten ari naiz eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat (matematika, fisika, kimika, etab.) Deitu: 662 48 79 64.

■ Ingenieritza teknikoko ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat.

Deitu: 608 16 49 71.

EROSTEKO

■ 1.000 euro inguru balio duen bigarren eskuko autoa erosiko nuke, lanerako. Tf: 666 913 176/ 679 859 243.

SALGAI

■ Etxe berria salgai Goiko Klean. Bi logela gehi bestea duplexean. Sukalde konpletoa, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653742576 (Karme).

TAXIA

■ Taxi zerbitzu berria Orion. 608 82 78 26 (Iñaki).

28TIK AURRERA EZ DUZU AITZAKIARIK...

Aerobik
Acquaerobik
Spinning
Fisio-osasuna
Helduen igeriketa
Batuka
GAP
Gihar-tonik
Edadetuen gimnasia
Yoga
Pilates

Gazteen igeriketa
Gym-jazz
Funky-hip hop
Haurtxoen igeriketa
Judo
Karate
Haurren igeriketa

BERRIKUNTZAK

Helduen/haurren capoeira
Igeriketa pertsonalizatua

- * Fisioterapia: urte guztiko zerbitzua
- * Fotodepilazioa: urrian promozioak
- * Presoterapia: azaroan promozioak